

## NORBANAKO LAN PLANAK IKASLE HELDU BERRIENTZAT

### 1.- IKASLE HELDU BERRIAK ETA BANAKAKO ESKU-HARTZE PLANA JARRAIBIDEETAN

Banakako Esku-hartzen Plana Hezkuntza Sailak 2003-04ko Hizkuntza Indartzeko Proiektuei buruzko deialdi berezian agertu zen lehenengoz. Deialdi horren asmoa zen ikasle heldu berriei eman beharreko laguntzak arautzea. Horretarako, ikastetxeek proiektu bat aurkeztu eta bertan azaldu behar zuten zenbat ikasle etorri berri zeuden ikastetxean, ikasle horiekin zer egingo zuten hizkuntza lantzeko eta zein irakasle egongo zen prest lan hori bideratzeko.

Proiektua onartzen zitzaion ikastetxeari HIPI irakaslea- hizkuntza irakasten laguntzen duen irakaslea- ematen zitzaion. Irakasle horren funtzioak eta lan esparrua deialdian bertan azaltzen ziren; lan horietako bat zelarik banakako esku-hartze plana egitea ikasle heldu berri bakoitzari.

Handik aurrera, deialdia zabaltzen da urtero, eta noizbait aldaketa batzuk sartu dituzte. Horietako batzuek zerikusia izan dute norbanako esku-hartze planekin.

Ikus ditzagun nola definitzen diren ikasle heldu berriak eta banakako esku-hartze planak:

2003ko instrukzioak ikasle heldu berrien definizioa ematen du:

*“... Instrukzio hauetan ikasle etorkintzat hartuko dugu beste hezkuntza-sistema batetik etorri eta EAEko Hezkuntza Sistemak sartzen den ikaslea: EAEko Hezkuntza Sistemak ezaugarri bereziak ditu, bai hizkuntzaren aldetik eta bai curriculumaren aldetik ere, eta, ondorioz, beharrezkoa da neurri batzuk arautzea, ikasle etorkinak EAEko Hezkuntza Sistemara behar bezala egokituko direla bermatzeko.”<sup>1</sup>*

Banakako esku-hartze Planaren azken aipamena 2007ko maiatzeko Hizkuntza Indartzeko Proiektuei buruzko deialdian agertzen da:

---

<sup>1</sup> 2003ko instrukzioak

*Ikasle bakoitzak Banakako Esku-hartze Plan bat izango du. Plan horiek Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura izango dira, eta ikasle bakoitzaren egoerara egokituko dira. Horietan, gutxienez, honako hauek jaso beharko dira: **ikasleen hizkuntza premien azalpena; helburuak, lan-metodologia eta ebaluazio-irizpideak; ohiko taldearen barruan egingo den denboraren antolaketa; hala balego, berariazko taldea; tutoretzapean egindako jarduera indibidualak, eta prozesuaren ebaluazioa eta amaierako ebaluazioa, aurretik diseinatutako planaren arabera.***

Beste erreferentzia bat agertzen da Kulturartekotasunerako eta ikasle etorri berrien inklusiorako planean (2007ko ekainean Parlamentua aurkeztua, baina argitaratu gabea). Plan horrek hiru helburu ditu, horietako bat ikasle heldu berrien inklusioa delarik. Helburu horiek bideratzeko horien barruan ekintza batzuk jasota daude. Horietako bat da:

**Ikasle etorri berri bakoitzaren Banakako Esku-hartze Plana egitea**

*Ikasle etorri berri bakoitzaren Banakako Esku-hartze Plana egin, hasierako egoera baloratu ostean, ikasle etorri berriak irakaskuntzako hizkuntzez eta curriculumeko edukiez pixkana-pixkana jabetzeko programa diseinatuko duena.*

*Tutoreek eta hizkuntza indartzeko irakasleek, ikastetxeko orientatzaile edo aholkulariekin batera, ikasle etorri berrien Banakako Esku-hartze Plana egingo dute. Helburuen eta ebaluazio irizpideen berri emateaz gain, planak baliabideak ere azaldu behar ditu, koordinazioa noiz izango den eta plana bera nola ebaluatuko den. Hori guztia ikastetxeko protokoloan erabakitakoa errespetatuz egin beharko da.*

Plan honek hurrengo deialdiak arautzen dituen plan-markoa izan beharko luke. Gaur egun, oster, ez da dakigu indarrean dagoen argitaratu den ala aurrera eramango den.

## **2.- LABURBILDUZ...**

### **2.A.- ZER DA BANAKAKO ESKU-HARTZE PLANA**

Ikaslea heldu berriarekin jarraituko den programa islatzen duen dokumentua da norbanako lan plana.

Programa horren barruan zehazten dira erabaki metodologikoak, antolamenduzkoak eta curriculumekoak, azken horretan hizkuntzek lehentasuna hartzen dutelarik.

### **2.B.- ZEINTZUK DIRA ATALAK?**

A.- **Ikaslearen egoera** ikastetxera heltzerakoan: familiak emandako informazioarekin, eta hasierako ebaluazioan jasotako informazioarekin.

B.- **Ikaslearekin lortu beharreko helburuak** curriculumeko arloetan eta arlo afektibo-sozialean.

C.- **Baliabideak eta Interbentzio-plana**: irakasleak, laguntza-mota eta ikaslearen ordutegia.

D.- **Ebaluazio prozesua** bi arlotan: ikaslea ebaluatzeko irizpideak eta plana bera ebaluatzeko jarduerak.

### 3.- GOGOETAK, PROPOSAMENAK ETA ZALANTZAK

#### 3.-A. GOGOETAK (Gasteizko mintegian adostutakoak)

- O Banakako esku-hartze plana egitea garrantzitsua da, ikasle bakoitzaren ibilbidea markatu behar baitu, irakasleen artean erabakiak hartzen lagundu behar du eta guztien koordinazioa ahalbideratu behar du.
- O Banakako esku-hartze planak ikaslearen egoera du abiapuntua eta tresna erabilgarria izan behar du, ez dokumentu burokratiko bat.
- O Planak egiteko denbora behar da, ikaslea ondo ezagutu behar baita egin ahal izateko. Izan ere, lehen egunak ez dira hoberenak ikasle heldu berrien ebaluazioa egiteko. Deialdian markatzen diren datak ezin dira bete.
- O Banakako esku-hartze planak goian aipatzen diren atal guztiei erreferentzia egiten badie, tutoreak hartu beharko luke horren gidaritza, nahiz eta HIPI irakasleak, aholkulariak ... ere bertan parte hartu.
- O Banakako esku-hartze planak ikasle heldu berriaren ebaluazioa egiteko tresnarik behinena izan behar du. ***Indartze-neurri modura agertu beharko luke ikaslearen ebaluazio-txostenetan eta agirietan.***

#### 3.-B.- PROPOSAMENAK

A.- Gero eta ikasle heldu berri gehiago ditugu ikastetxeetan. Ikasle heldu berri asko dauden tokietan bidera ezina bihurtzen da horrenbeste plana egitea. Hoberena izango litzateke guztiei plana egitea, baina batzuetan gertatzen da planak errepikatzen direla, landu behar dituzten edukiak berberak direlako. Hori gertatzen da eskolatze-prozesu ona izan duten ikasleekin, adibidez. Horien beharra euskara ikastea da, eta hori bideratzeko hizkuntza programazioa daukagu.

Planak egiteko lehentasun batzuk markatu ahal dira:

*\*Lehen Hezkuntzako etaparen amaieran dauden ikasleak.*

*\*Eskolatze ahula izan duten ikasleak, alegia, hezkuntza-beharrak eta hizkuntza-beharrak dituzte ikasleak.*

*\*Ikasleen lehen-hizkuntza ez-erromanikoa denean..*

Lehen Hezkuntzako lehen zikloko ikasleek ez dute norbanako lan planaren beharra. Curriculumeko helburu eta eduki guztiak oso egokiak dira ikasle guztientzat, heldu berriak barne.

Ikasleen egoeraren arabera, tutoreak gelako programazioan egin ditzake programaren egokitzapena.

B.- Banakako esku-hartze plana egiten ez den kasuetan, oinarritzko dokumentu bat izan beharko genuke zehazten duena:

Ikaslearen ordutegia, laguntza-mota (gela barruan edo kanpoan), curriculumeko arloak (Arrunta edo egokitua).

C.- Ikasle heldu berrien artean aniztasuna handia dagoenez, Banakako esku-hartze planaren eredu desberdinak egin daitezke ikasleen ikaslearen hizkuntza/hezkuntza-beharren arabera. Plantila moldagarriak edo plan irekiak izan daitezke.

Ikus ditzagun zeintzuk izan daitezkeen ikasle heldu berrien hezkuntza-beharrak

- \* Euskara ikastea
- \* Gaztelaniaren ikastea/garatzea.
- \* Alfabetizazioa prozesua ikastea edo garatzea.
- \* Matematika arloko hainbat eduki lantzea.
- \* Lan-ohiturak ezagutzea
- \* Arlo afektibo-sozialeko edukiak
- ...

### 3. D.- ZAILTASUNAK ETA ZALANTZAK

- Erreferentzia- dokumentuak falta dira planak egiteko. Curriculum zabalegia da eta Ikastetxearen Curriculum Proiektuak ez dira oso erabilgarriak.
- Ikastetxeetan gogoeta gutxi dago ikasleek lortu beharreko **oinarritzko helburu eta edukiei buruz**, horietan izan behar baitira planak markatzen dituenak (onuragarria izango litzateke ikasle guztientzat).
- Ikastetxeetan ez dago denborarik irakasleen elkar-lana behar bezala egiteko. Nondik atera daitezke orduak planak egiteko?
- Ebaluazioa egiteko orientabideak behar dira.
- Norbanako Lan Planak epeak markatu behar ditu, baina zeintzuk? Ikasturte bat?, bi? laguntza jasotzen duen aldia?... gelakideak harrapatzen dituen arte?

#### 4.-. **PROPOSAMENAK NORBANAKO ESKU-HARTZE PLANAK EGITEKO**

1.- HIPIAk beteko du plantila orokor bat (2007-08 ikasturtean ikuskaritzak eskatu duenaren antzekoa) bertan azaltzen delarik:

Ikasleen izena, jatorria, ikasmaila, laguntza-mota, ailegatze-data, hizkuntza-urratsa, nanakako esku-hartze plana duen ala ez (edo izango duena la ez)

2.- HIPIak , tutorearekin batera, erabakiko du ikasleari banakako esku-hartze plana egingo zaion ala ez. Plan hori bien artean egingo dute ikaslea heldu eta lehenengo bi hilabeteetan.

3.- HIPIak tutorearekin batera, erabakiko du zein formatu eman banakako esku-hartze planari.

A-FORMATOA: Ikaslearen hezkuntza eta hizkuntza beharrak aipatu behar dira eta horiek non landuko diren. Interbentzio-plana zehaztu behar da.

B-FORMATOA: Irekia da, bertan ikaslearekin landuko diren helburuak eta edukiak aipatu daitezke. Egokia izan daiteke ikasle heldu berria eta bere kideen arteko curriculum- desberdintasun handia denean.

4.- Banakako esku-hartze planak bete (atalak banatu daitezke irakasleen artean. Adibidez, tutoreak bete ditzake integrazio-arloa eta HIPIak hizkuntzei dagokion atala...)

Banakako esku-hartze plan baten adibidea: Balizko ikasle bat hartu dugu -6.mailara datorrena, eskolatze-prozesu ahula izan duena eta urrutiko herrialde batetik etorri dena- esku-hartze plan baten adibidea egiteko.

BANAKAKO ESKU-HARTZE PLANAK EGITEKO DOKUMENTU  
LAGUNGARRIAK

A.- **Ikaslearen egoera** ikastetxera heltzerakoan: familiak emandako informazioarekin, eta hasierako ebaluazioan jasotako informazioarekin.

HYPERLINK "laguntzeko\_DOK/HASI\_EBALUAZIOA.doc" [Ikusi Hasierako ebaluazioa Lehen Hezkuntzan](#)

B.- **Ikaslearekin lortu beharreko helburuak** curriculumeko arloetan eta arlo afektibo-sozialean.

Hizkuntza arloa: Ikusi HIZKUNTZA LANTZEN HELDU BERRIEKIN

Arlo sozio-afektiboa, integrazioa: Egokiak izan daitezke tutoretza-planak.

Tutoretza-planak ez dauden kasuetan, honakoa erabil daiteke:

HYPERLINK "laguntzeko\_DOK/EGOKITZAPENA.doc" [Ikasle heldu berrien egokitza-pena](#)

C.- **Baliabideak eta Interbentzio-plana:** irakasleak, laguntza-mota eta ikaslearen ordutegia.

D.- **Ebaluazio prozesua** bi arlotan: ikaslea ebaluatzeko irizpideak eta plana bera ebaluatzeko jarduerak.